

Rserba: DIRU-ITURRIA

SARRERA:

- **Zenbat eta nola ordaintzeko prest dago zuen bezeroa eskaintzen ari zareten produktuaren edo zerbitzuaren truke?**
- Zenbat eta nola ordaintzeko prest dauden bezeroak eskaintzen diegunaren truke.
- Funtsean, bi diru-sarrera mota daude:
 - Ordainketa bakarreko diru-sarrerak
 - Ordainketa errepikariak
- Prezioei dagokienez, honela sailkatzen dira:
 - Prezio finkoak
 - Prezio dinamikoak



AZALPENA:

Gure enpresaren (Kiex) irabazi iturri nagusia **ordainketa errepikakorren bidezkoa** izango da; hau da, ez dugu zerbitzua erabiltzen den unean bertan irabazirik lortuko, hilabetero edo denbora tarte zehatz bakoitzeko baizik. Irabaziak lortzeko bideak anitzak dira Rserba enpresaren kasuan.



Jatetxeen erreserbak eta zentzu batean salmentak gure gain hartzen ditugularik, hilero, gure aplikazioaren bitartez eginiko erreserba guztiei esker jatetxe bakoitzak lortu duen diru kopuruaren **%7,6a ordaindu beharko digu**. Izan ere, gure bezero bakarrak ez dira herritarrak, gurekin lan egiten duten enpresek bakoitzak ere gure zerbitzuak kontsumitzen ditu haien mesederako, beraz, hauek ere ordaindu beharra dute.

Gure egunerokoa iragarkiz josita dago, eta Rserba ez da gutxiago izango. Gure diru iturri nagusienetariko bat, **iragarkiak** izango dira. Beste

konpainia batzuek haien ekimenak ezagutzera eman ahal izango dituzte gure aplikazioaren bitartez. Honetarako, mota desberdinetako iragarkiak ezarri ahal izango dituzte (bideoak, irudi animatuak...) eta hauengatik ordaindu egin beharko dute, guri irabaziak sortu araziz.

Aurretik aipaturiko iturriez gain, beste bide batzuk ere har ditzakegu irabaziak lortzeko. Aplikazioa martxan jartzeko, enpresa osatzen dugun taldekideetako bakoitzak (4 kide) diru kopuru bat jarriko du: 1000 euro. Honetaz gain, herriko Udaletxeak eta Eusko Jaurlaritzak eskaintzen dituzten hainbat **dirulaguntza** daude eta hauen bitartez, hasiera batean enpresa finantzatu genezake. Aplikazioaren deskargen bitartez ere, kantitate txikiago batean izango den arren, diru nahikoa lortu genezake.

Amaitzeko, gure aplikazioak **harpidetza eskubidea** eskainiko die bezeroei. Honela, hilabetean 3,50 euro ordaintzearen truke eskaintza bereziak jasoko dituzte eta beste bezero batzuekin alderatuta abantaila gehiago izango dituzte guk irabazi gehiago sortu ahal izango ditugun bitartean.

